

ZU-BIDAIA-AMETSA

Mireia Buenetxea

Azpeitia, 13 urte

ZU

Zure begien disdirak
itsutzen du eguzkia.

Zure ahots eztiak
isiltzen du haizea.

Zure malkoak isurtzean
idortzen da itsasoa.

Zure pausoekin batera
mugitzen da mundua.

BIDAIA

Gustora egingo nuke
bidai luze ta ederra,
goizean goiz jeiki eta
mendiaz bestaldera,
itsasoa eta zerua
elkartzen diren unera.

Gustora egingo nuke
bidai luze ta ederra,
maitasunezko lorez
beteriko egutera,
amaigabeko laztanetan
galtzeko aukeran.

Gustora egingo nuke
bidai luze ta ederra,
eguzkiaz gaindi
izarrak dauden aldera,
eta oraindik gustorago
biok bagoaz batera.

AMETSA

Gauean oheratzean
ixten ditut bi begiak,
zurekin desagertzeko
ametsezko bidaian.

Mendian, euritan,
aterbe baten azpian,
lore bat oparitu eta
eman zenidan muxua.